



Ames-lorea

Eskar eta mesede guztien bitartekoa, Andra Maria dogu. Jaungoikoagandik yatorkun laguntza guztia, Andra Mariaren eskutik aritzen dogu. Egi andi ori sarritan entzun izan dogu; ta Eliz Ama deunak bere baieztuta dauko.

Andra Maria, Jaungoikoaren Ama dalako, zeruan mallarik gorenengoan dago; enparau zerutar guztien gain, Jaungoikoaren ondoan, Irutasun Deunaren zoragarri.

Andra Mariaren zeregiñik nagosiena Jaungoikoa maitatzea ta geuri on egin eta laguntzea da. Golgota mendian, Jesusen Odol-ixurtzeaz batean neke-oñaze zorrotzen artean sortu ginduzan; eta une aretante, bere seme-alaba egiñik geratu gintzazan. Geroztik Amari onenaren maitasun eztietsua geure alde izan dogu beti, Andra Mariak, amatasunaren egin-bear arduratsuak, zintzotasunik andienagaz betetuten diardu. Geuri laguntzen, geu maitetuten, geu zoriontzen...

Orretaz argibiderik onena ta adibiderik egokiena ames bat izan neban.

Egun baten, geixorik auzkitzen nintzan; eta olan nengoalarik, larritasunez neure biotza gora jasota, al neban eran otoitz egiten asi nintzan. Onetan, Jaunaren laguntzeaz, neure min eta oñazeak piska bat gitxitu egin ziran; eta era berean lo gozoak artu ninduan. Eta lo gozo arek, amesaren beso samurretan erriko elizara eroan ninduan. Eta antxe, aldara nagosiaren ondoan, osasun-eske otoitz beroan asi nintzan. Alako baten, Aingeru eder bat txirristada legunez goitik-bera jatsi zala oartu neban. Eta Aingeru eder arek irribarrez zer bear neban itandu eustan. Eta nik osasuna bear nebala erantzun neutson. Eta orduan bera, buruagaz "baietz" esanda, zerurantz abiau zan; eta nik begiakaz atzetik arretaz jarraitu neutson. Elizaren tellatua beingoan edegi zan, eta lañoak urratu ziran eta Aingerua zeruan sartzen ikusi neban. Orduantxe zeruaren zatirik ederrena ikusteko zoria izan neban. Jaungoikoa ta Andra Maria egozan leku zoriontsua. Jaungoikoa ta Andra

Maria edertasunez beterik guztien zoragarri egozala baño besterik ezin negike esan. Euren edertasuna bear dan lez azaltzekorik ezta-goalako...

Aingeruak, buru-makurtze andi bat eginda, Jaungoikoari eskumako belarrira itz egin eutson. Ori egiñikoan, beriala jatsi zan eta neure ondora etorri zanian, buruagaz "ezetz" esan eustan. Orduan barriro eskatzeko esan neutson. Bigarrenian ezkerreko belarrira, biotzaren aldeko belarrira itz egiteko arren egin neutson. Ori entzunik, Aingeruak bere eskuak bular-ganean gurutzetuaz irribarrez esan eustan: "Jaungoikoaren Biotza Andra Maria da. Beraz, Andra Mariagana noa". Itz orrek amaitzean yoranez eta biziatsunez esan neutson: "Bai, bai, zeruko Amagana zoaz! Ama dogu-ta!"

Beste barik, Aingerua lengo bidietatik beingo baten zeruratu zan, eta zeruko Amari neure aldez otoitz beroa egin eutson. Otoitzean ziarduala, Andra Mariak Jaungoikoari begiratu eutson, eta une berean, Jaungoiko on-onak Andra Mariri bere begi deun-deunak zuzendu eutsozan. Eta begirakune eztietsu ta deundeunaen erdian, larrosa zuri-eder bat sortu zan eta larrosa zuri-ederra Aingeruaren eskuetan geratu zala oartu neban. Orrenbestegaz, neure eskaria lorturik egoala igarri neban. Geiagoko barik, Aingeru liriaña eskuetan larrosa ebala jatsi zan eta lora ederra neuri emonagaz irribarrez esan eustan: "Or dozu Andra Mariaren eskarra. Zoaz beti Andra Mariagana".

Itz orrek entzutean, poz-pozez iratzartu nintzan, eta olan bearrik, neure gorputza geixo aretatik guztiz osatuta geratu zan. Lotan ikusi neban larrosa zuria baña, iratzartutean ezer-zetu egin zan. Ez baña bere guna ta bere mamiña itxi gabe. Lora zuriaren bitartez, Andra Mariaren maitasuna ta bakea neure biotzean berariz irarri ziran. Eta neure biotzeko atsegiña zelanbait agertzeko, beñola neure adizkide on bategandik ikasi neban abestixua Andra Mariari poz-pozez abestu neutson:

*Goizez eguzkiaren
argi izartzea,
zure gomutan, Ama,
bizitza zabaltzen da,
Zugaz beti bizitza...
Au bai zoriona!*